

# ZESTOAKO VI. ARGAZKI RALLYA

ZESTOA 2019KO EKAINAK 23

## OINARRIAK

- Memoria txarteldun kamera digitala edo kameradun telefono mugikorra duen edonork parte har dezake. Alabaina, ez da 16 urtez azpikoen sailkapenik egingo.
- IZEN EMATEA Internet bidez egingo da zestoa.argazki@gmail.com helbidean EKAINAREN 20a BAINO LEHEN EDO RALLYAREN EGUNEAN BERTAN. Izen ematea 10 €-koa izango da 16 urtetik gorakoentzat eta doakoa gaztetxoentzat. Rallyaren egun berean ordaindu beharko da, PORTALE KULTURGUNEAN, goizeko 9:00etatik 9:30era bitartean.
- Partaide bakoitzak bere memoria txartela erabat hutsik ekarri beharko du. Argazkiak Zestoan atera behar dira, txuri-beltzean edo koloretan, JPG formatuan, editatu gabe eta ahalik kalitate onenean. Argazkiek egunean bertan ateratakoak izan behar dute, eta datu horri erreparatuko zaio argazkiak onartu edo ez erabakitzeke.
- Rallya 13:30ean amaituko da Zestoako Portale kulturgunean eta argazkiak antolatzailearen ordenagailuan deskargatuko dira. Gehienez 36 argazki aurkeztu ahal izango dira (kontrol argazkia barne). Gehiago izanez gero, ezabatu egin beharko dira. Bost gai proposatuko ditu antolakuntzak, eta egunean bertan jakinaraziko dira. Argazkiak ezingo dira manipulatu (kameratik irten bezala eman beharko dira, ordenagailuan ukitu gabe). Berezkotasuna, sormena eta teknika hartuko dira kontutan puntuatzeko orduan.
- 2019ko EKAINAREN 30a baino lehen, parte hartzaileek gai bakoitzeko argazki bat aukeratu beharko dute, eta zestoa.argazki@gmail.com helbidera e-mail bat bidali, partaide zenbakia eta gai bakoitzerako hautatzen duen argazkiaren zenbakia adieraziz.
- Epaia eta sariak emateko datak aurrerago jakinaraziko dira.

## SARIAK

- BILDUMA ONENA. Garaikurra eta 100 €
- BIGARREN BILDUMA ONENA. Garaikurra eta 75 €
- HIRUGARREN BILDUMA ONENA. Garaikurra eta 50 €
- HERRIKO LEHEN EZ-SARITUA. Garaikurra eta 25 €
- LEHEN GAZTETXOA. Garaikurra eta 25 €
- Saritutako argazkiak elkarte antolatzailearen esku geldituko dira, zeinak egoki iruditzen zaion moduan erabili ahal izango dituen, betiere, egilearen izena aipatuz. Aurkeztutako argazkien aukeraketa batekin erakusketa bat antolatzeko asmoa dugu.
- Oinarri hauetan azaltzen ez den edozein arazo suertatuko balitz, elkarte antolatzaileak erabakiko du nola konpondu.

## OHARRAK:

F11 argazki elkarteak ez du bere gain hartzen ekintza garatzen den bitartean pertsonengan, argazki ekipoetan edota edozein ondasunetan sor daitezkeen kalte edota hondatzearen aurrean inolako erantzukizunik. Ekintzan parte hartzen dutenak izango dira beren buruaren, argazki ekipoen eta ondasunen arduradun bakarrak, eta baita ekintza garatzean hirugarrengoei eta haien ondasunei sor lekizkiekeen kalteena ere.

ANTOLATZAILEA:

